

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

### 4094

*EBAZPENA, 2022ko uztailaren 12koa, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearena, zeinaren bitartez abiarazi baita hondakin ez-arriskutsuen zabortegia itxi ondorengo aldia, haren lurzorua kalitatea deklaratu baita eta ingurumen-baimen integratua eman baitzaio itxi ondoren mantentzeko eta kontrolatzeko jarduerari, Getxoko Udalak sustatutakoa (Getxoko Udal Ingurumen Gunea, Larrañazubi kalea 12/16 behea 2, Algorta –Getxo eta Leioa–, Bizkaia).*

#### AURREKARIAK

2019ko maiatzaren 17an, Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) ingurumeneko baimen integratua emateko eskatu zion garai horretako Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoarekin bat, hondakin arriskutsuak kudeatzeko instalazioetarako, Leioako eta Getxoko udal-mugarteetan (Bizkaia).

Era berean, Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) gauzatutako jardueraren hiri-gintza-bateragarritasunari buruzko txostena aurkeztu zuen.

Aurkeztutako dokumentazioaren nahikotasuna egiaztatu ondoren, Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) sustatutako proiektua jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, egoki irizten ziren alegazioak aurkezteko. Horretarako, ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzaren Iragarki Taula Elektronikok argitaratu zen, 2019ko uztailaren 23an.

Jendaurreko informazioaren izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu zen.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen testu bateginaren 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, 2020ko ekainaren 1ean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak txostena eskatu zien Leioako Udalari, Getxoko Udalari eta Osasun Sailari.

2022ko ekainaren 15ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan xedatutakoa betez, sustatzailearen esku utzi zen espediente osoa. Epea amaituta, Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) ez zion alegaziorik aurkeztu ebazpen-proposamenari.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzorua kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila handia helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 1. eranskinean jasota dauden jarduerak garatzen dira instalazioan; horietaz gainera, baimen

honetan sartuko dira kokapen horretan egiten diren gainerako jarduera guztiak, instalazioa Lege horren aplikazio-esparruan egotea eragin zuten jardueraz gain, nahiz eta Legearen eranskinetan jasota ez egon, baldin eta jarduerarekin lotura teknikoa badute eta izan daitezkeen emisioen eta kutsaduraren gainean ondorioak izan baditzakete.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 9. artikuluan xedatzen dena betez, ingurumen-baimen integratua behar da 1. eranskinen aipatzen diren jardueretako edozein garatzen duten instalazioak ustiatzeko. 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, baimen honen oinarritzko helburua da arauaren aplikazio-eremuan dauden instalazioek arau horren xedea beteko dutela bermatzen duten baldintzak finkatzea; helburu hori gauzatzeko, baimena emateaz arduratzen diren Administrazio Publikoen arteko koordinazioa bermatuko duen prozedura aplikatuko da, horrela, izapideak bizkortzea eta partikularren administrazio-kargak arintzea lortuko baita. Orobat, baimen horrek Administrazioaren esku hartzeko egintza bakarrean bateratzen ditu indarreko legerian aurreikusten diren ingurumeneko baimen guztiak. Getxoko Udalaren (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu jarduera-baimenerako: saneamendu-sare orokorrera isurtzeko baimena, atmosferara isurketak egiteko baimena, eta, ingurumen-izaerako beste zehaztapen batzuen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzorua kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dutela egiaztatu da, aginduzko txostenak igorritik.

Bat etorritik lehenago aipatu dugun Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 29. artikuluan xedatutakoarekin, jarduera deseroso, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak egin ahal izateko administrazio eskudunek herritarren ekintzen gainean esku hartzeko dituzten administrazio-bitartekoak ordezkatzeko ditu ingurumen-baimen integratua emateko prozedurak. Ondorio horietarako, ingurumen-baimen integratua loteslea izango da udal-agintaritzarentzat, baldin eta jarduerak egitea ukatzeko edo zuzenketa-neurriak ezartzeko bada; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdi orori dagokionez ere. Era berean, Euskal Herriko Ingurugiroa babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 39. artikulua xedatzen duenez, neurri guztiak hartuko dira lizentziak eta baimenak eskuratzera bideratutako administrazio-prozedurak koordinatzeko. Adierazitako aginduak aplikatuz, Getxoko Udalaren (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) ingurumen-baimen bateratuaren baitan daude Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapide guztiak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur edo igor ditzakeen gai kutsagarrien balioak zehazte aldera, eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko baldintzak zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan da teknika erabilgarri onenen erabilera, bai eta hondakinak zabortegira eramanez ezabatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuak eta hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak ezarritako neurriak eta baldintzak ere.

Azaldu dugun guztia aintzat hartuta, espedientean jaso diren txosten guztiak aztertuta, ebazpen-proposamena egin zen, eta bertan jaso ziren Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) sustatutako proiektuari aplikatu beharreko baldintzak.

Azaldutakoarekin bat, goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta entzunaldi-izapidea bete da, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan jasotzen dena.

Aintzat hartu da organo honek eskumena duela ingurumen-baimen integratu hau emateko, otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuan (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena) xedatutakoaren arabera.

Honako hauek ikusi dira: Sailburuordetza honen 2022ko ekainaren 15eko Ebazpen-proposamena; 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteari buruzkoa; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartua; 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Industriako Emisioen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, hondakinak zabortegira eramanez ezabatzea arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta aplikatu beharreko gainerako arauak. Ondorioz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Getxoko Udaleri (Getxoko Udal Ingurumen Gunea), helbide soziala Getxoko udalerriko Foru kaleko 8an eta P-4805300C IFK dituenari, Leioako eta Getxoko udal-mugarteetan (Bizkaia) hondakin ez-arriskutsuen zabortegi bat instalatzeko ingurumen-baimen integratua ematea, Ebazpen honen bigarren apartatuan zehaztutako baldintzen arabera.

Jarduera hori sartuta dago Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko 16/2002 Legearen, uztailaren 1ekoaren, testu bateginaren 1. eranskineko 5.5 kategorian: «Mota guztietako hondakinen zabortegiak, egunean 10 tonatik gora hartzen dituztenak, edo guztira 25.000 tonatik gorako edukiera dutenak, hondakin geldoen zabortegiak izan ezik». Lege hori onartu zuen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak.

Instalazioaren helbidea honako hau da: Larrañazubi kalea 12/16 behea 2, Algorta-Getxo (Bizkaia).

Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) gauzatutako jarduera hondakin ez-arriskutsuen zabortegi baten mantentze-lanak egitea eta hura itxi ondorengo kontrola egitea da.

Getxoko Udal Ingurumen Gunea honako hauek osatzen dute: 2006an itxitako zabortegi batek, Getxon sortutako hiri-hondakinak jaso eta kudeatzeko hiri-hondakin solidoak transferitzeko planta batek eta garbigune batek. Transferitzeko plantak egunero 85 tona inguru jasotzen ditu eta baimendutako kudeatzailearengana eramaten ditu. Garbiguneak, guztira, 15 tonako edukiera du hondakin arriskutsuak biltegitzeko.

Instalazio guztien azalera hurrengo puntu hauek mugatzen dute (UTM ETRS 89 koordinatuak):

X: 501210,07 Y: 4798951,25.

X: 501421,48 Y: 4798765,46.

X: 501414,29 Y: 4798746,82.

X: 501394,28 Y: 4798704,40.

X: 501338,79 Y: 4798692,32.

X: 501284,01 Y: 4798680,39.

X: 501283,58 Y: 4798672,65.  
X: 501281,40 Y: 4798640,54.  
X: 501276,70 Y: 4798572,17.  
X: 501247,53 Y: 4798572,47.  
X: 501194,43 Y: 4798572,63.  
X: 501115,12 Y: 4798572,84.  
X: 501114,98 Y: 4798574,15.  
X: 501114,51 Y: 4798578,52.  
X: 501111,94 Y: 4798606,97.  
X: 501108,11 Y: 4798634,13.  
X: 501106,95 Y: 4798642,36.  
X: 501097,96 Y: 4798705,87.  
X: 501089,70 Y: 4798763,59.  
X: 501088,18 Y: 4798772,52.  
X: 501085,69 Y: 4798787,25.  
X: 501082,57 Y: 4798811,30.  
X: 501074,23 Y: 4798811,68.  
X: 501047,51 Y: 4798818,26.  
X: 501027,46 Y: 4798823,25.  
X: 501009,32 Y: 4798827,78.  
X: 500985,06 Y: 4798834,65.  
X: 500955,21 Y: 4798845,39.  
X: 500944,43 Y: 4798851,04.  
X: 500933,80 Y: 4798859,42.  
X: 500920,78 Y: 4798869,50.  
X: 500908,29 Y: 4798880,28.  
X: 500895,79 Y: 4798894,48.  
X: 500888,41 Y: 4798906,27.  
X: 500885,66 Y: 4798916,69.  
X: 500860,31 Y: 4798925,00.  
X: 500871,91 Y: 4798966,20.

X: 500883,27 Y: 4799006,59.

X: 500893,75 Y: 4799043,85.

X: 500902,43 Y: 4799050,11.

X: 500908,08 Y: 4799055,75.

X: 500909,50 Y: 4799059,96.

X: 500910,16 Y: 4799063,70.

X: 500911,51 Y: 4799068,34.

X: 500911,53 Y: 4799093,67.

X: 500915,52 Y: 4799109,10.

X: 500916,53 Y: 4799113,03.

X: 500922,71 Y: 4799122,19.

X: 500927,80 Y: 4799124,30.

X: 500933,06 Y: 4799122,72.

X: 500941,02 Y: 4799117,49.

X: 500952,91 Y: 4799106,82.

X: 500973,80 Y: 4799088,40.

X: 500995,86 Y: 4799067,64.

X: 501016,46 Y: 4799052,07.

X: 501023,89 Y: 4799045,27.

X: 501026,99 Y: 4799040,50.

X: 501029,65 Y: 4799034,97.

X: 501031,29 Y: 4799026,35.

X: 501037,28 Y: 4799017,56.

X: 501042,98 Y: 4799012,76.

X: 501052,59 Y: 4799007,95.

X: 501062,20 Y: 4799006,45.

X: 501071,88 Y: 4799006,23.

X: 501076,16 Y: 4799008,99.

X: 501078,36 Y: 4799010,85.

X: 501079,39 Y: 4799015,88.

X: 501078,71 Y: 4799020,27.

X: 501074,92 Y: 4799027,78.

X: 501071,13 Y: 4799034,95.

X: 501066,53 Y: 4799043,83.

X: 501059,50 Y: 4799059,08.

X: 501058,12 Y: 4799065,72.

X: 501058,10 Y: 4799069,06.

X: 501058,89 Y: 4799070,75.

X: 501062,50 Y: 4799073,15.

X: 501068,24 Y: 4799073,52.

X: 501072,97 Y: 4799070,80.

X: 501079,66 Y: 4799063,91.

X: 501087,22 Y: 4799056,70.

X: 501095,76 Y: 4799049,13.

X: 501112,56 Y: 4799035,82.

X: 501124,00 Y: 4799028,03.

X: 501138,15 Y: 4799016,05.

X: 501163,55 Y: 4798997,94.

X: 501182,89 Y: 4798982,25.

X: 501196,28 Y: 4798970,18.

Zabortegia Leioako eta Getxoko udal-mugarteetan dago –azkenaren mugak zabortegia zeharkatzen du erditik gutxi gorabehera–. Zabortegiaren azalera, guztira, 4,37 ha-koa da; zabortegiarekin lotutako lurren azalera guztira, berriz, 24,2 ha-koa. Zabortegia Kanteragane mendiaren hego-mendebaldeko hegalean dago. Zabortegirako sarbidea BI-634 errepidean dago, zabortegiaren behealdeko sarreraraino doan tokiko bide batetik.

Une honetan zabortegia itxita dago eta lixibiatuaren tratamendua plantan egiten da.

Getxoko zabortegiaren ustiapena 1971. urtean hasi zen.

Zabortegian utzitako hondakin gehienak Getxoko, Berangoko eta Leioako etxebizitzetan bildutakoak izan ziren, baita bideak eta berdeguneak garbitzeko lanei lotutakoak ere. Halaber, obra txikietako hondakin geldoen kantitate zehaztugabe baina txiki bat ere jaso zuen. Hondakin horiek kamioientzako errodadura-pista gisa erabili ohi ziren, isuritako hondakin-masaren gainean.

Zabortegia hiru fasetan zigilatu zen: lehenengoan (2000. urtean), 2,8 ha zigilatu ziren goiko plataforman; bigarren etapa batean, 0,8 ha zigilatu ziren (2004. urtean) ezpondan; azkenik, 1,5 ha zigilatu ziren, eta horrek zabortegia 2006an behin betiko ixtea ekarri zuen.

Behin betiko zigilatze-sistema, behetik gora, honako material hauek osatzen dute:

- Oinarri-geruza: 0,4 m-ko lodierako buztin-geruza, gainazala erregularizatzeko.
- Geomintza babesteko geruza: 300 g/m<sup>2</sup>-ko ehundu gabeko geozuntz puntzonatuzko geruza batez osatua.
- Iragazgaizte artifizialeko geruza: HDPE-geomintza, 1 mm-ko lodierakoa, zimurra bi aldeetatik.
- Maila drainatzailea: jarraitua, iragazketa-urak drainatzeko 2,17 l/m.s-tik gorako emaria ziurtatzeko diseinatutako geodrena.
- Ezpondak sendotzeko unitatea: 80 kN/m-tik gorako trakzioa duen geosareta bat.
- Landare-lurrezko geruza bat, 0,8 m-ko lodierakoa.

Euriaren jariatze-urak kanalizazio perimetralen bidez jasoko dira; hartara, ez dira nahastuko isuritako hondakin-masarekin. Zabortegiak hormigoizko areka perimetralak ditu zati batzuetan, eta legarrezkoak beste batzuetan. Plataforman sortzen den gainazaleko jariatzea areka perimetralera bideratzen da. Areak horrek uren banalerroa du mendebaldean, eta bertatik uraren zati bat plataformaren hegoaldera bideratzen da, eta beste bat, iparraldera. Areak perimetralen sarea diseinatuta dago 50 urteko errepikatze-denborako 24 orduko gehieneko prezipitazioari dagokion gehieneko emariari aurre egiteko. Bildutako jariatze-ur guztia kontrol-kutxatila batera bideratzen da, Bolue erreka isuri aurretik, sarbidearekiko paraleloan doan ubidea aprobetxatuz.

Gainazaleko drainatze-egitura horiek mantentzeko, drainatze-elementuak ikuskatzen dira, osorik.

Sei hilean behin, gainazaleko urak, lurpekoak eta lixibiatuak kontrolatzeko kanpainak egiten dira.

Lixibiatuen putzu bat dago zabortegiaren azpiko aldean, egungo sarreratik gertu, zabortegia irekitzeko lanen ondoren zenbait metroko altuerako buztin-lurren dike baten bidez mugatuta geratu zen eremuan sortu da. 24 m<sup>3</sup>-ko edukiera duen ur gordina erregulatzeko andelera eramaten dira lixibiatuak –puntu horretan sartzten dira lixibiatuak plantara–.

Lixibiatuaren tratamenduak etapa hauek ditu: lixibiatuak nahastea eta koagulatzea, azpiko lohiak kenduz gardentzea, gardendutakoa berotzea eta pH-a doitztea, efluentearen strippinga, garbiketa azidoa eta neutralizazioa. Lixibiatua berotzeko galdarari lotutako iturri bat dago.

Lixibiatuak tratatu behar ez direnean, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ezarritako isurketen muga-balioak betetzeagatik, baimena eskatuko zaio erakunde horri biltegiara zuzenean isurtzeko.

Zabortegiak 19 desgasifikazio-putzu ditu, biltegiaren azalera osoan banatuta, eta haien sako-nera hondakinen altueraren araberakoa da. Biogasa putzuen barrutik ateratzen da bakoitzari aplikatutako depresio baten bidez, xurgatze- eta errekontza-plantan instalatutako xurgagailuek eragindakoa. Bi erregulazio-estazio daude, eta, hurrenez hurren, 9 eta 10 putzutako biogasa biltzen dute. Erregulazio-estazio horietako gasa bildu eta xurgatze-zentralera eramaten da, eta zuzian erretzen da, atmosferara ez isurtzeko. Xurgatze-zentralaren sarreran, bi biogas-lerroak batu egiten dira lerro bakarra osatzeko. Ondoren, kondentsatuen bereizgailu bat dago, biogasak daraman hezetasuna deuseztatzeko. Ur hori biltegi batera bideratzen da, eta handik lixibiatuen putzuraino ponpatzen da. Instalatutako zuziak 250 Nm<sup>3</sup>/h-ko edukiera nominala dauka, eta errekontza-ganbera zilindriko bertikal batek osatzen du. Horretan, biogasa >850 °C-ko tenperaturan oxidatzen da >0,3 segundoz, ganberaren zolan dagoen sugar anitzeko erregailu baten bidez.

Hondakin ez-arriskutsu mistoetarako hondakindegia gisa sailkatu da instalazioa (hondakin organiko edo biodegradagarrien nahiz hondakin ez-organikoen eduki handia) (B3 azpikategoria),

hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan eta hondakinak zabortegira eramanez ezabatzea arautzen duen 646/2020 Errege Dekretuan, uztailaren 7koan, ezarritakoari jarraikiz.

Puntu hauek mugatzen dute isuri-ontzia (UTM ETRS 89 koordenatuak):

X: 501103,3 Y: 4798671,2.

X: 501098,1 Y: 4798712,8.

X: 501090,2 Y: 4798769,9.

X: 501081,5 Y: 4798825,4.

X: 501076,7 Y: 4798868,3.

X: 501103,3 Y: 4798892,2.

X: 501140,2 Y: 4798923,4.

X: 501169,8 Y: 4798948,9.

X: 501188,3 Y: 4798963,0.

X: 501222,2 Y: 4798963,0.

X: 501253,5 Y: 4798961,7.

X: 501278,3 Y: 4798960,9.

X: 501291,7 Y: 4798945,9.

X: 501316,3 Y: 4798917,8.

X: 501346,8 Y: 4798881,8.

X: 501370,7 Y: 4798847,2.

X: 501385,9 Y: 4798819,4.

X: 501401,1 Y: 4798793,0.

X: 501416,4 Y: 4798766,1.

X: 501431,1 Y: 4798739,3.

X: 501422,5 Y: 4798705,9.

X: 501372,0 Y: 4798692,0.

X: 501324,2 Y: 4798679,9.

X: 501289,4 Y: 4798671,2.

X: 501240,7 Y: 4798671,2.

X: 501194,6 Y: 4798671,2.

X: 501145,9 Y: 4798671,2.

Zaborteziak sartzeko eta ixteko perimetro-ate bat du eta, beraz, sarbidea uneoro dago kontrolatuta.

Bigarrena.– Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) sustatutako hondakin ez-arris-kutsuen zabortezi (Larrañazubi kalea 12/16, behea 2, Algorta – Getxo, Bizkaia) itxi ondorengo mantentze- eta kontrol-jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea.

A) Erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da milioi bat (1.000.000) euroko zenbatekoaz, ondorengoak estaliko dituen: hirugarren pertsonen edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatik kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz ingurumen aldatua konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera gehituko dena.

Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) erantzukizun zibileko asegurua eguneratu izanaren ziurtagiria igorri behar dio urtero Ingurumen Organoari, eta polizan edozein aldaketa gertatu bada, ingurumen-organoari jakinarazi beharko dio. Era berean, kontratatutako aseguru berri horren baldintza orokor, berezi eta espezifikoaren kopia ere igorri beharko dio organo horri.

B) Sustatzaileak finantzen azterketa eguneratua aurkeztu beharko du sei hileko epean, eta bertan sartuko ditu A puntuak (erantzukizun zibileko asegurua) ezarritako bermeetatik eratorritako gastuak, itxiera ondorengo mantentzerako zenbatetsitako kostuak eta neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa betearazteari buruz baimen honetan ezarritako eskakizun guztiak. Partiden eta urteen arabera banakatuko dira gastuak aipatu finantzen azterketan.

Aurrerantzean, hamabost egunean behin eguneratuko da finantzen azterketa, eta dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztuko da.

Gainera, azterketa egiteko, finantzen azterketa egiteko irizpideei buruzko argibide teknikoetan zehaztutako jarraibideak jarraitu beharko dira, ingurumen-organoak zehaztutakoak.

C) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik badago, Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) aldaketa horien berri emango du.

D) Babes- eta zuzenketa-neurriak sustatzaileak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala ezarriko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo apartatuetan ezarritakoari jarraituz:

D.1.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

D.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

D.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Getxoko Udalaren (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) instalazioaren ustiapenean bete beharreko baldintzak dira emisio atmosferikoek ez gainditzea ebazpen honetan ezarritako balioak, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun teknikoak betetzea.

Prozesuan atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, isurketa horien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri ez-zarratuak biltzea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurri egokiak hartuko dira istripuzko emisioen probabilitatea murrizteko, eta haien efluenteak giza osasunerako nahiz segurtasun publikorako arriskutsuak ez izateko. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperaturaren eta konposizioaren arabera sortzen diren aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

Proiektuan aipatzen diren atmosferako kutsaduraren inguruko neurriak beti beteko dira, bereziki hautsa ez isurtzeko neurriak, hala nola agregakin-multzoak ureztatzea edo bideak garbitzea.

Atmosfera Kutsa Dezaketen Jardueretarako Instalazioak Arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 5. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte instalazioaren titularrek.

Honako elementu hauek atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte: sekzioa, neurketa-gunea, laginketa-guneak, neurketa-por-tuak, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

Organo horrek foku berri bat baimendu ondoren, hura abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontrolako erakunde batek egindako hasierako IKE txosten bat igorri beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahalko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

#### D.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Hondakin ez-arriskutsuen zabortegia itxi ondorengo mantentzea eta kontrola egiteko Getxoko Udalaren (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) instalazioak honako foku konfinatu hauek ditu, Airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legearen atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoan jasotako 09 04 01 02 jarduerari lotuak:

Fokuaren zenbakia	Fokuaren kodea	Fokuaren izena	Altuera (m)	Barne-diametroa (m)	Katalogazioa	Jarduteko araubidea	UTM koordenatuak	
							X	Y
1	48014899-01	Lixibiatuak tratatzeko plantaren galdara	3,5	0,18	03 01 03 03	Foku sistematikoa	501.084	4.798.799
2	48014899-02	Gas-errekuntzaren zuzia	-	-	09 04 01 03	Etena	501.219	4.799.008

Jarduerak putzu bertikalen desgasifikazio-sistema bat eta zuzi bat ere baditu, eta horiei buruzko urteko jardun-denbora aurkeztu beharko da, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan.

Atzitutako gasa zuziraino eramaten da erretzeko.

Jardueran sortutako emisio barreiatuak hondakinak biltegitzako eremukoak dira.

## D.1.1.3.– Emisioen muga-balioak.

Instalazioa ustatzean, atmosferara egiten diren emisioetan ez dira emisioen muga-balio hauek gaindituko:

Fokuaren zenbakia	Substantziak	Emisioen muga-balioak	Metodoak
1	CO	624 mg/Nm <sup>3</sup>	IT-02: Emisioen kontrola
	SO <sub>2</sub>	850 mg/Nm <sup>3</sup>	
	NO <sub>x</sub> (NO <sub>2</sub> bezala adierazia)	615 mg/Nm <sup>3</sup>	
	Opakotasuna	Bacharach 2	

Baldintza hauekin lotuta daude balio horiek: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa, eta gas lehorra.

Isuriko muga-balioak betetzen diren ebaluatzeko, abenduaren 28ko 278/2011 Dekretuaren 9 artikulua arautzen duena beteko da. Isurpenen muga-balioren bat betetzen ez dela ikusten bada, beharrezko neurri zuzentzaileak hartu beharko dira luzamendurik gabe, eta berehala, ingurumen-arloko eskumena duen sailari ez-betetzearen, neurri zuzentzaileen eta haien epeen berri eman beharko zaio.

## D.1.1.4.– Zuziaren jardunerako baldintzak.

Biogasa deuseztatzeko zuzian 850 °C-tik gorako tenperatura hartuko da, gutxienez 0,3 segunduan (iraupen-denbora), eta turbulenzia egokiari eutsiz.

Segurtasuna dela eta, instalazioaren jabetzaren mugan metano gasaren kontzentrazioa ez da % 5 baino handiagoa izango, ezta % 1,25 baino handiagoa ere instalazioaren espazio itxietan, kontrol-sistemen edo gasa berreskuratze osagaien kasuan izan ezik.

Jarduerak sortutako usainek ondorio gogaikarriak sortzen baditu, neurri zuzentzaile gehigarriak hartuko dira usain horiek murrizteko.

Dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan, zuziaren funtzionamenduari buruzko txostenak aurkeztu beharko da, gutxienez jasoko dituen funtzionamendu-denbora, CH<sub>4</sub>ren batez besteko kontzentrazioa eta aldiko gorabeherak.

## D.1.1.5.– Gasen ezaugarritzea eta kudeaketa.

Putzuetako eta harguneetako gasen konposizioari dagokionez, irizpide orokor hauek aplikatuko dira:

– Putzuetako metano-kontzentrazioa % 40 (bolumenari dagokionez) baino handiagoa denean, erauzitako gasa zabortegiko gasa energetikoki aprobetxatzeko instalazio batera bideratuko da.

– Putzuetako metano-kontzentrazioa % 25 eta % 40 artekoa denean, ultrairagazpenaren edo antzeko teknika baten bidez mintza bereizteko sistema ezarriko da, erreusean metano-kontzentrazioa areagotzeko (iragazi gabeko frakzioa). Hala, zabortegiko gasa energetikoki aprobetxatzeko instalazio batera eraman daiteke frakzio hori; beste frakzioa, aldiz, zuzira eramango da erre dadin.

– Putzuetako metano-kontzentrazioa % 25 eta % 15 artekoa denean, erauzitako gasa zuzenean bidaliko da zuzi batera erre dadin.

2022ko irailaren 22a, osteguna

– Putzuetako metano-kontzentrazioa % 5 eta % 15 artekoa denean, erauzitako gasa zuzira bidaliko da baita ere erre dadin, baina alde zuzetik beste erregai batekin aberastu beharko da, errekuntza ahalbidezko.

– Putzuetako metano-kontzentrazioa % 5etik beherakoa denean, atmosferara isurtzea baimenduko da, erauzketa bortxatuaren beharrik izan gabe (erauzketa pasiboa).

Metanoaren kontzentrazio-portzentajeak orientagarriak dira, eta beste kudeaketa bat proposatu ahal izango da, aurkeztutako proposamena behar bezala justifikatuz instalazioaren inguruabar zehatzetara, organo honek argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritako irizpideetan oinarrituta.

Halaber, airearen kalitatea babesteko irizpideei eta desgasifikazio-sistemei buruzko ingurumen-organoren jarraibide teknikoetan ezarritakoa bete beharko da.

#### D.1.1.6.– Gasak bildu eta husteko sistemak.

Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte honako elementu hauek: fokuetako hondakin-gasak husteko tximiniek, fokuen sekzioak, neurketarako tokiak, laginketarako guneek, neurketa-portuek, irisgarritasunak eta segurtasunak eta zerbitzuek.

Gas-efluenteak tratatzeko sistemak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabilzan edo geldirik dauden aldiak.

#### D.1.2.– Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak.

##### D.1.2.1.– Isurien sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokalekua.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: hondakin ez-arriskutsuen zabortegia.

Isurgunea	Hondakin-uren mota	Isurpenaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurketa-gunearen UTM koordinatuak
1	Lixibiatuak	Isuri-ontzian botatutako materiala	Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu-sare nagusia (Gobelasko kolektorea)	X: 501.101,890 Y: 4.798.793,410
2	Ur beltzak	Bulegoak eta aldagelak		
3	Ibilgailuak garbitzeko erabiltzen diren urak:	Ingurumen-guneko instalazioak		
4	Isurketa-urak	Perimetroko euri-urak	Bolue erreka	X: 500.797,254 Y: 4.799.219,689

##### D.1.2.2.– Gehienez isuri daitezkeen emariak eta bolumenak.

###### a) Lixibiatuak:

Eguneko bolumena	52,6 m <sup>3</sup>
Urteko bolumena	19.200 m <sup>3</sup>

## D.1.2.3.– Gehieneko isurketa-balioak.

Isurketaren ohiko kutsadura-parametroak, kutsadura izan dezaketenak, honako hauek izango dira soil-soilik, bakoitzerako zehazten diren gehieneko balioekin:

Parametroak	Isurpenen muga-balioak
Tenperatura (°C)	45
*pH-a	6-9,5
*Solido esekiak guztira (mg/l)	600
Nitrogeno amoniakala (mg/l)	300
Olioak eta koipeak (animalia- edo landare-jatorrikoak) (mg/l)	300
Olioak eta koipeak (mineralak) (mg/l)	50
Anioi-detergenteak (mg SLS/l)	40
Zianuroak guztira (mg/l)	2
Sulfuroak (mg/l)	2
Kloruroak (mg/l)	(1)
Sulfatoak (mg/l)	1.500
Fluoruroak (mg/l)	50
Fenolak (mg/l)	50
Artsenikoa (mg/l)	1,5
Antimonioa (mg/l)	0,5
Barioa (mg/l)	20
Kadmioa (mg/l)	1,5
Kromoa guztira (mg/l)	7,5
Kromoa guztira (eguneko batezbestekoa) (mg/l)	0,75
Kromo hexabalentea (mg/l)	0,5
Kobrea (mg/l)	7,5
Eztainua (mg/l)	10
Burdina (mg/l)	30
Merkurioa (µg/l)	50
Nikela (mg/l)	5
Zilarra (mg/l)	1
Beruna (mg/l)	3
Selenioa (mg/l)	5
Zinka (mg/l)	15
Toxikotasuna (eq/m <sup>3</sup> )	50

\* Jarduera honen berriazko parametroak.

Azken karga kutsatzailea:

Parametroak	Kg/egun
Materia oxidagarria (OEK)	113,1
Materia esekiak	2,47
Nitrogeno amoniakala	33,5

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurketaren muga-balioak lortzeko.

#### D.1.2.4.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Hondakin-uren arazte-instalazioek edo hondakin-uren zuzenketa-neurriek jarduera hauek izango dituzte, funtsean:

– Nahasketa eta koagulazioa: zabortegitik datozen lixibiatuak ur gordina erregulatzeko andelera eramaten dira. Biltegi horretatik ponpa batekin xurgatzen da nahasketa-ganberarantz. Lixibiatua beharrezko errektiboekin nahastea eta tratamendu fisiko-kimikoan malutak sortzea errazteko, nahasketa-ganbera bat eta malutapen-ganbera bat daude, elektroirabiagailu bertikala dutenak. Lixibiatua NaOH-rekin nahasten da pH-a 9ra igotzeko eta kloruro ferrikoa gehitzen zaio, koagulatzaile gisa.

– Lamina-gardenketa eta azpiko lohiak kentzea: ahalik eta espazio txikienean jalki dadin errazteko, lamina motako dekantagailu bat dago. Ur koagulatua jaitsez sartzen da betegarriaren azpitik jarri arte. Une horretan, alboetara zabaltzen da, laminen bidez igotzen da, eta, gardendu ondoren, goiko aldean biltzen da. Laminetan gelditzen diren solidoak, grabitatearen eraginez, jaitsi egiten dira korrontearen kontrara, lohien kontzentratzaile gisa jarduten duen dekantagailuaren beheko konoraino. Lohiak aldi oro edukiontzi batera purgatzen dira. Gardendutako ura tratatu aurreko ur-biltegi batera eramaten da.

– Gardendutakoa berotzea eta pH-a doitzea: tratatu aurreko ureko amoniakoaren desortzioa optimizatzeko, beharrezkoa da berotzea. Eragiketa hori trukatzaille batean egiten da, gasolio-galdara batetik datorren urarekin tenperatura handituz. Amoniakoa bereizteko beharrezkoa da, gainera, tratatu aurreko uraren pH-a doitzea. Horretarako, nahasgailu estatiko bat eta NaOH dosifikatzeko sistema bat daude.

– Strippinga eta garbiketa azidoa: etapa horretan, lixibiatuko amoniakoa bereizten da, eta amonio-sulfatoa andel batean biltzen da. Amoniakoa desortziatzeko, airea sarrarazten da stripping-dorrearen behealdetik; airea dorretik igarotzen da, tratatu aurreko ur-korrontearen kontra gorantz, eta stripping-dorrearen goiko aldean biltzen da, garbitzeko dorre hezearen behealdera eramateko. Garbiketa-dorre hezean, stripping-dorretik datorren airearen amoniakoa xurgatzen da, goiko aldetik eta korrontearen kontra azido sulfurikoaren disoluzio bat erantsiz. Soluzioa dorrearen behealdean dagoen andel batean jasotzen eta xurgatzen da, ondoren birzirkulatzen jartzeko. Amonio-sulfatozko disoluzio asea andel batean biltegitzen da.

– Efluenta neutralizatzea: stripping-dorrearen behealdean amoniakorik gabeko ura biltzen da eta grabitate bidez elektroirabiagailu bat duen upel batera eramaten da, non efluintearen pH-a baimendutako mugetaraino neutralizatzen baita azido sulfurikoarekin. Ponpa batekin, tratatutako ura irteerako kolektorera eramaten da.

Kutxatila bat izango da saneamendu-sare orokorreko hargunearen aurretik; kutxatila horrek isurien lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango ditu. Egokitzat jotzen denean ikuskatu ahal izateko, kutxatila kokatuko dira zuzeneko sarbidea duten leku batean.

Lixibiatuen putzuan honako maila hauek finkatu eta markatuko dira:

– Ezohiko gehieneko maila (EGM). Zuloaren gainezkatze-mailatik behera 20 cm-ra kokatutako mailari dagokio.

– Ohiko gehieneko maila (OGM). Lixibiatuek ohiko ustiapen-baldintzetan hartu dezaketen gehieneko maila da. Kasu horretan, zuloen gehieneko ahalmenaren % 80ri dagokio (ezohiko gehieneko mailaren azpitik); hartara, soberakin-ahalmena izango da ezohiko egoerei aurre egin ahal izateko (eurite biziak, araztegirako garraioan geldiuneak eta abar).

Ohiko gehieneko maila gaindituz gero, berehala jakinaraziko zaio ingurumen-organismoari zer arazoik eragin duten eta zer neurri hartu diren ezohiko gehieneko maila ez gainditzeko.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) behar beste aldaketa egingo ditu arazketa-instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio aurretik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

D.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak kudeatuko dira ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoen ezarritakoaren arabera, eta, beharrezkoa bada, karakterizatu egin beharko dira euren izaera eta helmuga egokiena zehazteko.

Berariaz debekatzen da sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek bildu eta biltegitratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketarik ez izateko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da, eta, horretarako, balorizatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak kasu honetan baino ezin izango dira deuseztatu: haiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala frogatzen bada. Birsortzea-berrerabiltea lehenetsiko da balorizatze beste edozein modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, lehenetsunez instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraikiz.

Baldin eta aurreikusten bada hondakindegia baimenduan ezabatzea dela hondakinen azken helmuga, orduan, hondakin horiek karakterizatuko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak (hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituen) xedatutakoari jarraikiz, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak (Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena) ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitateak –Ebazpen honetan daude jasota–, orientagarriak dira soilik, kontuan hartuta jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. Ezertan eragotzi gabe Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan (4.d apartatua) ezarritakoa, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, kasu honetan baimena egokitzea soilik eskatu beharko da baldin eta sortutako hondakinen kantitatea handitzeak aurretik ezarri diren biltegitratze- eta ontziratze-baldintzak aldatu beharra badakar.

Hondakinak biltegitratzeko eremuak edo eremuek lurzoru estankoa izango dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan edo oso bustita egoteagatik, hondakinok isurtzeak edo lixibatuak sorbaditzakete, bada, orduan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak izan beharko dira, gerta daitezkeen isurtzeak kanpora irten ez daitezzen. Hondakin hautsezatuen kasuan, saihestu egingo da hondakinek euri-urarekin kontakturik izatea edo haizeak arrastaka eramatea, eta behar izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak lehen aldiz atera aurretik, kudeatzaile baimenduari ematen zaizkion sortutako hondakinak behar bezala identifikatu eta sailkatzen direla justifikatu beharko da, bereziki hondakin arriskutsuen izaerari eta arrisku-ezaugarriei dagokienez, betiere honako zerrenda honetan ezarritako irizpideekin bat etorritik: Europako Hondakin Zerrenda, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiz argitaratua, zeinaren bidez aldatzen baita hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia; eta Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014/EB Erregelamendua, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (zuzentarau hori hondakinei buruzkoa da, eta zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen). Hori egiaztatu ondoren, eguneratu egingo dira baimen honetan jasota eta hura izapide-zeko orduan indarrean zeuden identifikazioa eta sailkapena.

Hondakinak desagertu edo galtzen badira edo ihes egiten badute, berehala jakinaraziko zaie gertatutakoa Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari eta Leioako eta Getxoko Udalei.

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorritik ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikularekin.

Nahitaezko aurretiko jakinarazpen-kasuetan, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31. artikuluan aurreikusitako eta ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 9. artikuluan garatutako kause-tako bat gertatzen denean, hala organo honek nola helmugako autonomia-erkidegoko organo eskudunak hondakinak garraiatzearen aurka egin ahalko dute; arrazoitutako erabakia garraio-jakin-arazpena aurkeztu eta gehienez ere hamar eguneko epean jakinarazi beharko diote operadoreari.

Baldin eta hondakinak Estatutik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan, hondakinen lekualdaketei buruzkoan, ezarria bete beharko da.

#### D.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Honako hauek dira sustatzaileak aitortutako hondakin arriskutsuak:

HEZ	Hondakinaren deskribapena	Ezaugarriak Arriskugarritasuna	Kudeatzeko modua	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
150202	Xurgatzaileak eta trapuak	HP5	D15	Mantentze-lanak	40
130205	Olio erabilia	HP5	R13	Mantentze-lanak	1.980
160107	Olio-iragazkiak	HP5	R13	Mantentze-lanak	300
150110	Plastikozko ontziak	HP5	R13	Mantentze-lanak	25
160601	Bateriak	HP8	R13	Mantentze-lanak	850
170503	Lur arriskutsuak	HP5	D15	Mantentze-lanak	90

a) Hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta ezartzen da hondakin arrisku bakoitzari dagokion izendapena eta kodetzea, eta baimena izapidetzean jasotzen da horiei buruzko informazioa. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, beste batzuk, oinarrizkoak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran zehar. Horiek definitzen dituzte mota eta hondakinaren osagai arriskutsuak. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa zuzena dela egiaztatzeko, eta bai Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planean ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, hondakin bakoitzaren tratamendu-kontratuetan jasotako informazioa organo horrek onartu beharko du, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskurapena edo balorizazioa kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakin onarpen-agirietan lagatze- edo ezabatze-kodeak baliozkotzeko eskatzen bada.

b) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, duten tipologia dela-eta, jarioen bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

c) Hondakin arriskutsuak ontziratzeke, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira. Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek eta ontzikiek etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak jariatuta edo lurrunduta gal ez daitezen.

d) Hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabetetik gora eduki biltegian.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenbizikoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana bidali aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honen hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena aurretiaz eginda dagoela, araudian zehaztutako moduan, identifikaziorako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) artxiboan erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko ditu tratamendu-kontratuak eta identifikazio-agiriak edo agiri ofizial baliokideak.

g) Egiaztatu egin beharko da ezen hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraio-bideak bete egiten dituela halako gaiak garraiatzeko indarreko legerian ezarritako baldintzak.

h) Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraikiz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak –besteak beste, lanpara fluoreszenteenak– gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatuaren arabera kudeatuko dira. Halaber, Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute pilen eta metagailuen hondakinek. Kudeatzaile baimenduaren tratamendu-kontratua

izateko, garraioaren aurretiko jakinarazpena egiteko eta identifikazio-agiria betetzeko betebeharririk salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudeatu ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-erakundeei egindako entregak justifikatzeko agiriak hiru urtez gorde beharko dira gutxienez.

j) Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) PCB eduki ditzaketen gailuak dituenek, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan zehaztutako baldintzak eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

k) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ozono-geruza agortzen duten substantzien gainean 2009ko irailaren 16an eman zuen 1005/2009 (EE) Erregelamenduak adierazten dituen substantzia erabiliak baldin baditu Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea), berreskuratu egingo ditu, aldeek onetsitako bitarteko tekniko bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarri den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz; bestela, birziklatzeko edo birsortzeko erabiliko ditu aparatuak berrikusteko edo mantentzeko eragiketetan, edo desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

l) Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) urtero adierazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiatuta dauden hondakinen zerrenda. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa, dagokion urtekoa, bidaliko du.

m) Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea), datuak bildu eta hurrengo urteko martxoaren 1a baino lehen eta dagokion ingurumena zaintzeko programaren barruan, aurkeztu beharko du artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat, lege horren XV. eranskinean agertzen den gutxieneko edukiarekin.

n) Urtean 10 tona hondakin ez-arriskutsu baino gehiago sortuz gero, Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) formatu elektronikoko artxibo kronologiko bat izan beharko du. Horretan, jasoko ditu, ordena kronologikoan, sortutako hondakinen kantitatea, izaera eta jatorria; berrerabiltzeko, birziklatzeko, bestelako balorizazio-eragiketetako eta deuseztatze-eragiketetako prestaketa-jardueretan sortutako produktuen, materialen edo substantzien eta hondakinen kantitatea; eta, hala badagokio, hondakinen, produktuen, materialen eta substantzien helmuga, bilketa-maiztasuna, garraiobidea eta aurreikusitako tratamendu-modua. Apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinen arabera baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko jasoko dira datuak artxibo kronologikoan, hala behar denean. Artxibo kronologikoa hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanetarako exijitzen diren egiaztatze dokumentaleko informazioaz osatuko da. Artxibo kronologiko hori bost urtez gorde beharko da gutxienez eta urtero bidali beharko da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

o) Hondakin arriskutsuen kudeaketaren oinarrizko printzipioetako bat betetzeko, zein hondakin horiek ahalik eta gutxien sortzea baita, Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) hondakin arriskutsuen sorrera minimizatze plan bat aurkeztu beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza honi, lau urtetik behin, Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru

kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 18.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, betiere Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) ez badu 10 t/urte hondakin arriskutsu baino gutxiago sortzen edo EMAS ziurtagiria edo baliokideren bat badu.

p) Baldin eta Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko Legearen (apirilaren 24ko 11/1997 Legea) lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritza- edo industria-ontzi baten azken jabea bada Getxoko Udala (Getxoko Udal Ingurumen Gunea), bera izango da ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen ardura-duna, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

q) Apartatu honetako e) eta f) apartatuetan (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta l), m) eta n) apartatuetan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira, transakzio elektronikoko bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

r) Amiantoa duten hondakinak antzemanaz gero, Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) bete egin beharko ditu Amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikulua) ezarritako eskakizunak. Horrez gain, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxienerako baldintzak.

#### D.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak hondakin ez-arriskutsu hauek aitortu ditu:

Hondakinaren izena	HEZ kodea	Zer prozesuri lotuta dagoen	Zenbatetsitako urteko ekoizpena
Papera eta kartoia	150101	Bulegoak	Puntuala

a) Bigarren apartatuaren D.1.3 azpiapartatuan xedatutakoarekin bat, hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu egin behar da, eta horretarako, balioztatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak kasu honetan baino ezin izango dira deuseztatu: haiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala frogatzen bada. Justifikazio tekniko hori lortzeko, hondakin hori onartzeko baimenduta dauden hiru kudeatzailek ezetza eman behar diote kasuan kasuko hondakina balorizatzeari.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika eta behar bezala bereizi, eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balorizatzaile baimendu bati.

c) Hondakin hauen biltegitratze-aldia gehienez ere urtebetekoa izango da azkenean ezabatzerako bideratuta badaude, edo bi urtekoa, azkenean balioa ematera bideratuta badaude.

d) Oro har, ebakatu aurretik hondakin guztiek izan beharko dute kudeatzaile baimendu batek emandako tratamendu-kontratua, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honen hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) erregistratu eta artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak edo haien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak badira, hiru urtean gutxienez.

e) Hondakina zabortegian biltegitratuz gero, hondakin arriskugabea eraman aurretik identifikazio-agiria bete beharko da, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa (dekretu haren bidez arautu zen hondakinak hondakindegian biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea).

f) Balorizatzeko edo ezabatzeko helburuarekin, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikulua araberaz.

g) Baldin eta Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko Legearen (apirilaren 24ko 11/1997 Legea) lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritza- edo industria-ontzi baten azken jabea bada Getxoko Udala (Getxoko Udal Ingurumen Gunea), bera izango da ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen ardura-duna, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

h) Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea), datuak bildu eta hurrengo urteko martxoaren 1a baino lehen eta dagokion ingurumena zaintzeko programaren barruan, aurkeztu beharko du artxibo kronologikoan jasotako informazioaren laburpen-memoria bat, lege horren XV. eranskinean agertzen den gutxieneko edukiarekin.

i) Urtean 10 tona hondakin ez-arriskutsu baino gehiago sortuz gero, Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) formatu elektronikoko artxibo kronologiko bat izan beharko du. Horretan, jasoko ditu, ordena kronologikoan, sortutako hondakinen kantitatea, izaera eta jatorria; berrerabiltzeko, birziklatzeko, bestelako balorizazio-eragiketarako eta deuseztatze-eragiketarako prestaketa-jardueretan sortutako produktuen, materialen edo substantzien eta hondakinen kantitatea; eta, hala badagokio, hondakinen, produktuen, materialen eta substantzien helmuga, bilketa-maiztasuna, garraiobidea eta aurreikusitako tratamendu-modua. Apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinen arabera baimendutako tratamendu-eragiketa bakoitzeko jasoko dira datuak artxibo kronologikoan, hala behar denean. Artxibo kronologikoa hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanetarako exijitzen diren egiaztatze dokumentaleko informazioaz osatuko da. Artxibo kronologiko hori bost urtez gorde beharko da gutxienez eta urtero bidali beharko da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

j) Apartatu honetako e) eta f) letretan (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta h) eta i) letretan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira, transakzio bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eskainitako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

#### D.1.4.– Lurzorua eta lurpeko urak babesteko baldintzak.

Bat etorritik urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan, ekainaren 25eko 4/2015 Legean eta abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuan (Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzekoan) ezarritako aginduak betetzeko aurkeztutako lurzoruaren egoerari buruzko txostenarekin, eta hor jasotako gomendioei jarraikiz, lurzorua babesteko behar diren neurriak hartu beharko ditu Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea):

Bat etorri ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 16. artikuluko 2. apartatuarekin, lurzoruen egoeraren txostenak aurkeztu beharko dira, gutxienez, 5 urtean behin, lege hori indarrean jartzen denetik aurrera.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako araudian, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuan ezarrita dauden lurzorua babes-teko betebeharrak betetze aldera, sustatzaileak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

– Oinarrizko txostena, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren 20. artikuluan aipatutako epeak eta maiztasunak beteta.

– Lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-dokumentuak, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 10.2 artikuluan ezarritako epeen arabera.

Nolanahi ere, sustatzaileak lurzoruen dokumentu bakar bat bidaliko du, ikerketa-lanak egiten eta lurzoruen kalitatea leheneratzen diharduen erakunde ezagun batek egina, eta aipatutako txostenak jasoko ditu hor (lurzoruen egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarrizko txostena, eta lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-dokumentuak). Emandako agiriak aldatu edo agiri berriak eman behar diren bakoitzean, lurzoruen agiri bakar berri bat bidaliko da.

Lur-mugimenduak.

Sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez:

1.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan lurak mugitzea dakarren aldaketa bat aurreikusiz gero:

a) Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikuluan 1.c) apartatuan ebatzen denari jarraikiz, induskatu beharreko materialak (lurak, obra-hondakinak, etab.) karakterizatu egin beharko ditu jardueraren sustatzaileak, ekintza kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horientzako kudeaketa modu egokiena zehaztearen.

b) Jarduketa horretan aurreikusten bada induskatu beharreko materialen bolumena 500 m<sup>3</sup>-tik gorakoa dela (zolatak barne), edo jarduketa burutu bitartean gainditze hori antzemango balitz, nahitaezkoa izango da lurzoruen kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko akreditatutako erakunde batek egindako indusketa selektiborako plan bat aurkeztea. Indusketa-planak abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organok onartu beharko du hura egikaritu aurretik.

c) Induskatu beharreko bolumena 500 m<sup>3</sup>-tik beherakoa bada, aldaketaren jakinarazpenak honako informazio hau jaso beharko du:

– Jarduketa sustatuko duen pertsona fisikoaren edo juridikoaren eta jarduketa burutuko duen kontratistaren identifikazioa.

– Jarduketaren xede den lekua non dagoen, baita Lurzoruen Kalitatearen Administrazio Erregistroaren erreferentzia ere.

– Jarduketaren xede den eremuaren mugaketa eta azalera. Jakinarazpenean, lurzattia eta jarduketa-gunea zehatz-mehatz non dauden jakitea ahalbidetzen duten planoak erantsiko dira.

– Jarduketaren deskribapen xehatua.

– Induskatuko diren materialen bolumena, baita zolatak ere.

– Ingurumen-jarraipenerako lanen eta azken txostena egitearen arduradunaren identifikazioa; artikulu honetan aipatutako kasuetan, erakunde egiaztatua izan beharko du.

– Jarduketa hasteko aurreikusitako datak.

d) Aurreko kasuetako edozeinetan, obra egin ondoren, azken txostena bidali beharko du. Bertan, lurren karakterizazioaren emaitzak adierazi beharko dira; horrez gain, induskatutako materialen berrerabilera edo kudeaketa egokia egiaztatzeko txosten bat ere bidali beharko da. Indusketaren bolumena 100 m<sup>3</sup>-tik gorakoa bada, erakunde egiaztatu batek egingo ditu ingurumen-jarraipenerako lanak eta txostena.

e) Arau orokor gisa, *Kutsatutako lurzoruetan indusketa selektiboak egiteko gidan* jasotzen diren irizpideak beteko dira. Esteka honetan eskura daiteke gida:

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/kutsatutako-lurzoruetan-indusketa-selektiboak-egiteko-gida>

f) Soberakinak hondakindegian biltegitratuz hustu nahi izanez gero, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan (hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena) ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinaren karakterizazioa. Oro har, laginketa gauzatzeko, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean eta gidaren 10.2.6 apartatuan (Induskatu behar diren lurzoruetan *in situ* egindako laginketa) biltzen diren induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren oinarriko irizpideei jarraituko zaie.

g) Soberako materialak instalazio berean berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean) ezarritako VIE-B (industria-erabilera) balioaren azpitikoa. Horrez gain, lur horien hidrokarburo- edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, erakunde akreditatu batek egin beharko ditu laginketa eta azterketa, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren arabera, zeinaren bidez ezartzen baita lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema, eta zehazten baita erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa.

h) Lur garbitzat hartuko dira ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako EBA-A ebaluazioko balio-adierazleak baino balio txikiagoak eta TPHetarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurrak, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelanerako.

i) Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahalko da. Lurzoru naturalaren parekoa den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

2.– Instalazioa baimenduta dagoen lursailetik kanpo aldaketaren bat egitea aurreikusten bada (lurzoru berria okupatuz), eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen I. eranskinean aipatutako jardueraren bat, sustatzaileak lurzoruaren arloko adierazpen bat lortu beharko du, egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

Horrez gainera, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikuluko 2. apartatuaren arabera, lurra- ren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek hartu beharreko neurriak ezar ditzan, bat etorri aipatutako 4/2015 Legearen 23. artikuluko 1.e apartatuarekin, betiere.

#### D.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak jarriko dira:

a) Ondorengo indize akustikoak gaindi ez daitezzen, behar diren neurri guztiak ezarriko dira:

a.1.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzan barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmaz indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzan barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 07:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmaz indizeak 35 dB(A) ere.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handiagoko guneeetako zarata-maila.

E) Hondakin ez-arriskutsuen zabortegia itxi ondorengo baldintzak.

30 urtekoa izango da hondakin ez-arriskutsuen zabortegia itxi osteko kontrola eta zainketa-aldia, 2007ko abenduaren 13tik hasita. Eta, Ingurumen-organoak hala irizten badio, data hori aldatu ahal izango da, itxi osteko kontroletan lortutako emaitzen arabera. Itxi ondorengo aldiari dagokionez, sustatzaileak horrela eskatuta, ingurumen-organoak emandako ebazpenaren bidez ezarriko dira itxi ondorengo aldiaren bukaera eta horren inguruan ezarritako betebeharren epe-betetzea. Aldez aurretik atal honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da.

Gainera, atal hauetan ezarritakoa bete beharko da:

a) Getxoko Udala (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) zabortegia itxi ondorengo mantentze-lanen eta kontrolaren arduraduna izango da, eta funtzio horietaz arduratuko den pertsonaren izena jakinarazi beharko dio ingurumen-organoari.

b) Zabortegiaren titularrak jakinarazi beharko du honako hauen inguruan izandako edozein aldaketa: posta-helbidea, telefonoa, faxa, posta elektronikoa edo edozein komunikabide eta kontaktu, eta zabortegia itxi osteko kontrolaz arduratuko den pertsona.

c) Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) itxi ondorengo zainketak betetzeaz arduratuko den enpresa arduraduna izendatuko du. Zabortegiaren titularra ez den beste enpresa bat baldin bada, gutxienez urtebeterako izendatuko da enpresa hori. Izendapen horren berri eman beharko zaio ingurumen-organoari, izendapena egin eta 15 eguneko epean, eta zabortegiaren titularraren ordezkariaren onarpen-sinadura, itxi osteko zainketaz arduratuko den enpresako ordezkariaren onarpen-sinadura eta titularrak emandako agirien zerrenda xehatua barne izango ditu. Zerrendak aipatu zabortegiari dagozkion administrazio-eskakizun guztiak eta zigilatzean eta ordura arteko itxi osteko zainketan zehar sortutako agiri tekniko guztiak jaso beharko ditu.

d) Itxi osteko aldiaren zehar kokapenean obrak edo jarduerak egin nahi izanez gero, aldez aurretik ingurumen-organoaren baimena izan beharko da. Nolanahi ere, jarduera horiek zigilatze osoa, perimetro-kanalen funtzionamendua, egonkortasuna edo itxi osteko kontrol-sistemaren elementuetan eraginik ez dutela, eta garatu nahi den jardueraren erabilerarako edo jarduerarako arrisku onartezina eragingo ez duela ziurtatu beharko zaio ingurumen-organoari. Hala eginez gero, horiek birjartzeko nahikoa neurri zuzentzaile aurreikusi direla ziurtatu beharko da.

Horretarako, zigilatzearen gainean sortzen diren zuhaitzak eta zuhaixkak kendu egingo dira.

Ereiteen mantentze-lanak egin beharko dira, hala nola ebakitzeak, ongarritzeak eta ureztatzeak.

Zigilatzearen gainean landare-espezie inbaditzaileak jartzea zaindu beharko da; hala badagokio, horiek ugaltzea kontrolatzeko eta errotik kentzeko neurriak hartu beharko dira.

Zigilatzearen azalera izandako jaulkitzeak, irristatzeak eta/edo higadurak konponduko dira.

Berritu egingo dira zigilatutako eremu guztiak, bai zabortegiko partzelakoak, bai instalazio lagungarriek hartzen dituztenak, bai haietara joateko bideak. Horixe bera egingo da zerbitzu-sareak egiteko eta lixibiatuak ebakutzeko eremuekin, bai eta, berritze-planean ageri ez arren, zigilatze-lanak amaitu ondoren kaltetuak suertatzen diren eremuekin ere.

Ezin izango da inola ere egoitza gisa erabili zabortegia itxi ondorengo aldiab zabortegiaren zigilatzearen gaina. Halaber, ez da baimenduko inolako jarduketarik zigilatze-sekuentziako ur garbien drainatze-geruzaren gainazaletik 50 cm baino gutxiagora hurbil dadin.

e) Zigilatze-sekuentziaren amaierako geruza (80 cm-koa, landare-lurrezkoa) babes-geruza da; beraz, zanga, zimenduak, eta antzerakoak egiten diren obretan ezingo da geruza hori zeharkatu, ezta aldi baterako ere; hortaz, ekipamenduak diseinatu eta gauzatzean zigilatzearen amaierako kotak kontuan izan beharko dira, zeharkatu ezin den beheko muga gisa. Saihestu behar dira hondeamakinak behar dituzten jarduerak, baita bestelako makina astunen erabilera behar dituztenak ere, baldin eta babes-geruza hautsi edo mehetu badezakete edo deformazioak transmititu badizakete eta zigilatze-geruza arriskuan jar badezakete.

f) Baldintza optimoetan edukiko dira zabortegiko eremu guztiak, dela zabortegia ezartzeko partzelakoak, instalazio osagarrietakoak eta sartzeko bideetakoak, dela zerbitzu-sareak gauzatze eta lixibiatuak husteko beharrezkoak direnak. Besteak beste, lurrazaleko urak biltzeko kanalizazioak, lixibiatuen drainatzeak eta eroapenak eta itxi ondorengo zaintza-planean zehaztutako kontrol-puntuak, bai eta instalatutako elementu osagarriak ere, tartean, lixibiatuen emari-neurgailua edo dagozkion kontrol-kutxatilik. Aipatutako elementuren bat narriatu dela antzemanaz gero, ahalik eta azkarren konpondu beharko da.

Lixibiatuak drainatzeko hodiak aldizka garbitu beharko dira, jaulki ahal izan diren sedimentuak edo prezipitatu kimikoak kentzeko, instalazioaren eraginkortasunean eragin baitezakete. Horren erregistro bat edukiko da, ingurumen-organoari igorriko zaizkion aldizkako txostenetan sartuko direnak.

g) Ikuskapenak egingo dira aldizka eta 24 orduko prezipitazio handiko aldiab ondoren drainatze-elementuetan, higadura-zeinuak, asentamentuak, pitzadurak, sedimentazioa eta drainatzea blokea dezaketen elementuak identifikatzeko. Zorrotenen harri-lubetaren egoerari eta osotasunari arreta berezia jarriko zaio.

F) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta honako apartatu hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

F.1.– Atmosferara eginiko emisioak kontrolatzea.

F.1.1.– Kanpoko kontrolak.

a) Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) isurketak kontrolatu beharko ditu ondorengo informazioa bilduz:

Fokua	Fokuaren izena	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	Lixibiatuak tratatzeko plantaren galdara	CO	5 urtean behin
		SO <sub>2</sub>	
		NO <sub>x</sub> (NO <sub>2</sub> bezala adierazia)	
		Opakotasuna	

b) Puntu honetako a) letran aipatutako neurketa guztiak administrazioaren II. mailako erakunde laguntzailearen batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan jasotzen den bezala; eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek, berriz, Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, batik bat honako hauei dagozkienak: neurketaren helburua eta plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa kopurua eta neurketa bakoitzaren banako iraupena eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

c) Halaber, a) apartatuan azaldutako emisio-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batez besteko maiztasunarekin funtzionatzen bada, igorpen bakoitzak ordubete baino gehiago irauten duela, edo, bestela, edozelako maiztasunarekin, emisioaren iraupen globala instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, betiere kontrolatik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori urteko ingurumena zaintzeko programan, urte egokikoan, justifikatu beharko da.

d) Zabortegiko gasaren neurketa tximinien barnealdean, lixibiatuen irteeran eta azpiazaleko uren irteeran egingo da, baita zabortegiko gainazalean eta ustiapen-gunearen perimetroan ere. Neurtu beharreko parametroak, gutxienez, hauek izango dira: CO, C<sub>O2</sub>, O<sub>2</sub>, H<sub>2</sub>S, H<sub>2</sub> eta CH<sub>4</sub>, presio atmosferikoa eta airearen tenperatura, barnean eta sei hilean behin neurtuko direnak. Urtero, neurketa bat egingo du kanpo-erakunde batek.

F.1.2.– Lortutako emaitzen erregistroa.

F.1.1 puntuan eskatutako parametro guztien neurketen txostenak bidali beharko dira. Kanpoko kontrolen txostenetan, jarraibide teknikoetan ezarritako gutxieneko edukia jaso beharko da. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Emisio atmosferikoen ondorengo kontrolak egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

Erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, honako hauetan ezarritakoari jarraikiz, betiere: 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikuluan (100/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, Atmosfera kutsa dezaketan jardueren katalogoa eguneratzen eta hura ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituena) eta 278/2011 Dekretuaren III. eranskinean (278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, Atmosfera kutsa dezaketan jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzen dituena).

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

F.2.– Saneamendu-sarera isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, analisi hauek egingo dira:

Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-puntuaren UTM koordenatuak (ETRS 89)	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
Lixibiatuak (tratamendu-instalazioaren aurretik) (lixibiatuen putzua)	X: 501.113,836 Y: 4.798.862,084	Emaria, pH	Jarraitua	Barnekoa
		PH-a, eroankortasuna, tenperatura, SS, olioak eta koipeak, DBO <sub>5</sub> , DQO, N-NH <sub>4</sub> <sup>+</sup> , N-NO <sub>3</sub> <sup>-</sup> , NTK, PO <sub>4</sub> <sup>-3</sup> , Cl <sup>-</sup> , S <sup>-2</sup> , Al, Sb, As, Ba, Be, B, Cd, Co, Cu, Cr, Mn, Hg, Mo, Ni, Pb, Se, Na, Zn, F <sup>-</sup> , SO <sub>4</sub> <sup>-2</sup> , CN <sup>-</sup> , fenolen indizea, TOC	Lau hilekoan behin	Kanpokoak
Lixibiatuak (tratamendu-instalazioaren ondoren)	X: 501.101,89 Y: 4.798.793,41	BBUPren bidez ezarritako parametro bereizgarriak	BBUPren bidez ezarritako aldizkakotasuna	BBUPren bidez eginak
Gainazaleko urak (Bolue erreka)	Ibaian gora: X: 501.313,249 Y: 4.798.586,342 Ibaian behera: X: 500.797,254 Y: 4.799.219,689	PH-a, eroankortasuna, tenperatura, SS, olioak eta koipeak, DBO <sub>5</sub> , DQO, N-NH <sub>4</sub> <sup>+</sup> , N-NO <sub>3</sub> <sup>-</sup> , NTK, PO <sub>4</sub> <sup>-3</sup> , Cl <sup>-</sup> , S <sup>-2</sup> , Al, Sb, As, Ba, Be, B, Cd, Co, Cu, Cr, Mn, Hg, Mo, Ni, Pb, Se, Na, Zn, F <sup>-</sup> , SO <sub>4</sub> <sup>-2</sup> , CN <sup>-</sup> , fenolen indizea, TOC	Sei hilean behin	Kanpokoak
Lurpeko urak	Ibaian gora: SP3 X: 501.313,249 Y: 4.798.586,342 Ibaian behera: SP1 X: 501.107,954 Y: 4.798.934,654 SP2 X: 501.102,763 Y: 4.798.772,613	Maila, PH-a, eroankortasuna, tenperatura, SS, olioak eta koipeak, DBO <sub>5</sub> , DQO, N-NH <sub>4</sub> <sup>+</sup> , N-NO <sub>3</sub> <sup>-</sup> , NTK, PO <sub>4</sub> <sup>-3</sup> , Cl <sup>-</sup> , S <sup>-2</sup> , Al, Sb, As, Ba, Be, B, Cd, Co, Cu, Cr, Mn, Hg, Mo, Ni, Pb, Se, Na, Zn, F <sup>-</sup> , SO <sub>4</sub> <sup>-2</sup> , CN <sup>-</sup> , fenolen indizea, TOC	Sei hilean behin	Kanpokoak

b) Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea bai ondorengo analisia, «erakunde laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta aurreko puntuetan aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

c) Isurketen kontrolen emaitzak hauei bidaliko zaizkie:

– Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, ebazpen honetako bigarren apartatuaren F.10 azpiapartatuan ezarritako epeak eta baldintzak betez.

d) Kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti laginketak.

e) Puntu honetako a) apartatuan aipatutako neurketa guztiak Administrazioaren II. mailako Ingurumen Lankidetzako Erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraituz.

f) Isurketak baimenaren baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, baldin eta puntu honetako a) apartatuan ezarritako kontrol-parametro guztiek betetzen badituzte ebazpen honen Bigarren apartatuko D.1.2.3 azpiapartatuan ezarritako mugak.

F.3.– Datu meteorologikoak biltzea.

Parametro meteorologikoen gaineko kontrola egingo da, eta horretarako Galea lurmuturreko estazio meteorologikoan erregistratutako datuak hartuko dira. Hain zuzen ere honako parametro hauek berrikusi eta 10 minuturo biltegitratuko dira:

- Haizearen abiadura eta norabidea.
- Aireko tenperatura.
- Hezetasun erlatiboa.
- Presio barometrikoa.
- Prezipitazioa.
- Eguzki-irradiazio orokorra.

Lurrunketa lisimetroen bidez edo antzeko metodo baten bidez neurtuko da.

F.4.– Zabortegiaren balantze hidrikoa.

Kanpoko erakunde batek zabortegiaren balantze hidrikoa egin beharko du urtero, eta, horretarako, lixibiatuen emariaren datu erregistratuak eta datu meteorologiko erregistratuak erabiliko ditu.

Aipatutako balantzea dagokion urteko ingurumena zaintzeko programari atxikiko zaio.

Gainera, balantze hidrikoa egiteko, ingurumen-organoak ezarritako jarraibide teknikoak jarraitu beharko dira.

F.5.– Isurontziaren topografiaren kontrola.

Zabortegi osoaren egonkortasunari buruzko azterlan bat aurkeztu beharko da. Horretan, balizko hausturak aztertuko dira, bermatzeko lur-jausien kasuan segurtasun-faktorea 1,5koa edo handiagoa dela ohiko egoeran eta 1,3koa edo handiagoa istripu-egoeretan (drainatze-sistemaren akatsa).

Isurontziaren topografia kontrolatuko da, zabortegiak izan ditzakeen asentamentuak identifikatzeko eta horri lotutako deformazioek zigilatzearen osotasunari edo azpiegiturei eragin diezaieketen jakiteko.

Kontrol topografiko honen emaitzek barne hartuko dituzte neurketa bitarteko eta materialak, gertatutako gorabeherak, aldi bateko bilakaera grafikoak, formatu elektronikoan erregistratutako datuak (kalkuluorria) eta horien interpretazioa.

Txosten hori Ingurumena Zaintzeko Programarekin –dagokion urtekoarekin– batera bidaliko da.

#### F.6.– Gauzatzeko eraren kontrola.

Urtero, tresneriaren kontrolean espezializatutako enpresa batek prozesuak eta ingurumena kalitatea kontrolatzeko sistemen eta neurri zuzentzaileen funtzionamenduari buruzko txostena egingo du.

Aipatutako txostena dagokion urteko ingurumena zaintzeko programari atxikiko zaio.

#### F.7.– Jardueraren adierazleen kontrola.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko.

Adierazlea	Unitatea
Sortutako lixibiatuak, guztira	m <sup>3</sup>
Erretiratutako lohiak	Kg
Erretiratutako lohiak / tratatutako lixibiatua	Lohi kg/lixibiatu m <sup>3</sup>
Biogasa sortzea	Nm <sup>3</sup>

Adierazle horiek urtero kalkulatu eta kontrolatuko dira, eta dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztu beharko dituzte.

#### F.8.– Zarataren kontrola.

a) Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira bost urtean behin:  $L_d$ ,  $L_e$ ,  $L_n$ ,  $L_{Aeq}$ ,  $T_i$  eta  $L_{Aeq,60}$  segundo.

b) Neurketa bidezko ebaluazio guztiak II. mailako administrazioko lankidetzaren erakunde batek egin beharko ditu urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz. Erakunde horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera egiaztagiria eduki beharko du akustikaren arloan espazio- eta denbora-laginketa egiteko. Nolanahi ere, ingurumen-organoak zainduko du ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Jasangarriko Sailburuordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

#### F.9.– Ingurumeneko finantza-bermearen kontrola, Ingurumena Zaintzeko Programaren (IZP) barnean.

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da IZPn, IZP entregatzeko prozedura telematikoan xede horretarako prestatutako dokumentu-ereduak baliatuz:

- Ingurumen Arriskuen Análisisa (IAA) eta erantzukizunpeko adierazpena.
- Finantza-bermea eratu behar izanez gero, indarrean dagoen aseguru-polizaren kopia edo eratutako finantza-bermearen motaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Ingurumeneko finantza-bermea eratzetik salbuetsita egonez gero, eta 300.000 eta 2.000.000 euro bitarteko zenbatekoarekin konpon daitezkeen kalteak eragin ditzaketen operadoreak izanez gero (Ingurumen erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen 28.b artikulua), erakunde independente batek emandako ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da; erakunde horrek etengabe atxikirik egon behar du Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta

Ikuskaritzako Sistemara (EMAS) edo indarrean den UNE-EN ISO 14001 Ingurumen Kudeaketa-rako Sistemara.

– Operadoreak ingurumen-arriskuen azterketa (IAA) eguneratuko du egoki irizten badu, eta, betiere, jardueran, instalazioan edo oinarrizko baimenean funtsezko aldaketak gertatzen direnean. Finantza-bermearen zenbatekoa urtero eguneratuko da, KPIaren arabera. Ingurumen-arriskuen azterketaren eguneraketak IZPren dokumentazioaren barnean aurkeztuko dira.

Ingurumen-erantzukizuna.

Jardueraren operadoreak ingurumen-kalteak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko neurriak hartu eta betearazi behar ditu, eta horien kostuak ordaindu behar ditu, zenbatekoa edozein dela ere, baita dolorik, errurik edo zabarkeriarik ez bada ere, Ingurumen-erantzukizunari buruzko Legearen 19.1 artikuluan adierazten den bezala.

F.10.– Emaitzak kontrolatzea eta igortzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta azterketen emaitzak behar bezala erregistratu beharko dira, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidali, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webguneko bidalketa-prozedura telematikoari jarraikiz:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-a2inguru/eu/>

Era horretan, aipatutako programak zehaztutako aldian egiten diren kontrol guztiak, ibilgura eta/edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren.

Ezarritako baldintzak urratzen diren kasuetan bakarrik bidali beharko zaio berehalako jakinarazpena Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza honi, gertatutakoaren berri izan ondoren, betiere; horretarako helbide elektronikoa: [ippc@euskadi.eus](mailto:ippc@euskadi.eus)

Horrez gain, urtean behin baino gehiagotan egiten diren kontrolak egiten diren urteari dagokion programaren barruan baino ez dira bidaliko.

Emaitza horiek urtero bidaliko dira, betiere martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan jasoko dira babes- eta zuzenketa-neurrien eta prozeduren kontrolerako eta ingurumenaren kalitaterako sistemen funtzionamendua eta emaitzen analisia, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta, haien kausa eta konponbide posibleak azalduz; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aurrez aldetik hala egin ez bada.

F.11.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina egin beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Honako hauek zehaztu beharko ditu programa horrek: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika, egiaztatu ahal izateko adierazle horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearen ezarritako neurri eta mekanismoen eragin-kortasuna (ingurumen-adierazleak).

G) Prebentzio-neurriak eta funtzionamendu-baldintzak ohiz kanpoko egoeretan.

G.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko lanak eta mantentze-lanetarako programatutako lanak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, sortuko diren isurketen eta hondakinen zenbatespena egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzekoa ere bai.

Instalazioa geldiaraztean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak kudeatu beharko dira, bigarren ataleko D.1.3 azpiapartatuan ezarritakoarekin bat etorritik. «Instalazioan ekoiztutako hondakinen kudeaketa zuzena bermatzeko baldintzak», jarraitu beharko dira, baina ez da beharrezkoa izango hondakin horiek baimendutako hondakinen zerrendan jasota egotea.

G.2.– Jarduera etetea, itxi ondorengo aldia bukatuta.

Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa (90.002 epigrafea, «Hondakinak tratatzeko jarduerak»), eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrak ezartzekoa. Horrenbestez, Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) jarduera bertan behera uztearen berri eman beharko dio ingurumen-organoari, bi hilabeteko epea agortu baino lehen; jakinarazpen horrekin batera, jarduera-proposamen bat ere aurkeztu beharko da, erakunde horrek ezar dezan noraino iristen diren bere betebeharrak eta lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasteko epea noiz hasiko den beranduenez, ekainaren 25eko 4/2015 Legeak 31.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

G.3.– Jarduera anomaloa izanez gero aplikatu beharreko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean zehaztuta dauden ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriez eta jardunerako baldintzez gain, ondorengo apartatuetan aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

a) Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo isuriak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: erai-kuntzako materialak (iragazgaitasuna), biltegiatzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko jarioak biltzeko sistemak.

Aurreko lerrokadan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen ikusizko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen egoera orori aurrea hartzeko.

Era berean, atmosferara eta uretara egindako isurpenak prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, etab.) eta ikuskatu eta kontrolatzeko ekipoen egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

Nabeen barruan zolak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Hondakin-urak ezingo dira «by pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan nahitaez «by pass» bidez isurketak egin behar badira, titularrak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dio behar besteko aurrerapenaz; hartarako, segurtasun-neurriak zertan diren zehaztuz, eta bai isurketak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurriak ere. «By-pass» horretan aurreikusi gabeko isurketa bat egongo balitz, titularrak segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko du, dagokion txostena Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidalita (apartatu honetako h) letran adierazitakoari jarraituz).

Debekatutako substantzia isurtzeko berehalako arriskua balego, horren berri urgentziaz emango dio erabiltzaileak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, hark instalazioak babesteko neurri egokiak har ditzan.

b) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

c) Erabilitako olioak eta efluenteen arazketako hondakinak, besteak beste, eta oro har, lantegian sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lurzatiek azalera guztiak iragazgaitzuko dira.

d) Hauts-itxurako produktuak biltegitratzeko, silo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabiloi estali eta itxiak eduki beharko dira.

e) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabana-tzeko moduan biltegitratuko dira.

f) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegitratzeko instalazio horiek bete egin beharko dituzte produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak.

g) Larrialdirik gertatuz gero, berehala eta eraginkortasunez esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kantitate nahikoan: berriro ontziratzeke erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isurketei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasun-edukiontzia, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta norbera babesteko ekipamendu bereziak.

h) Gorabeherarik gertatuz gero, agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren inguruan kalteak eragin ditzakeen gorabeheraren edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri berehala eman beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari (zuzentzeko edo eusteko neurri egokiak hartu ondoren), horretarako gaitutako helbide elektronikoaren bitartez: [ippc@euskadi.eus](mailto:ippc@euskadi.eus). Jakinarazpenean alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Jatorriak eta kausak (unean zehaztu daitezkeenak).
- Berehala aplikatutako zuzenketa-neurriak edo eusteko neurriak.
- Sortutako ondorioak.
- Epe laburrera aurreikusitako jardunak, halakorik balego.

Gertakari edo arazo larriren bat edo ezusteko isurketaren bat egonez gero, SOS Deiak eta Leioako eta Getxoko Udalak jakinaren gainean jarri behar dira. Ondoren, gehienez ere 48 orduko epean, istripuari buruzko txosten xehatua bidali beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Gorabehera non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Gorabeheraren iraupena.
- Istripuzko isurketa gertatuz gero, emaria, isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitekeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisia barne.
- Mugak gaindituz gero, emisioei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen zenbatespena.
- Hartutako zuzenketa-neurriak.
- Arazoa berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isurketen bat gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen orekari modu larrian kalte egin badiezaioke, titularrak berehala etengo du isurketa hori, eta, horrez gain, gertaeraren berri eman beharko die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Uraren Euskal Agentziari eta Babes Zibilean eta ingurumenaren arloan ardurak dituzten organismoei, baita SOS Deiak (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

i) Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, gerta daitezkeen gorabeherak edo arazoak saiheste aldera, jardueraren titularrak berehala jakinarazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari instalazioko edozein etenaldi programatu izango dela, prozesu etengabe batekoa bada, baita aurreikusitako mantentze prebentiboak ere, ahalik eta denbora-tarte handienarekin.

j) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

H) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomentatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahalko dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu egin daitezke jardueraren sustatzailak hala eskatuta edo ofizioz, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

I) Urtean behin, otsaileko azken eguna baino lehenago, Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) aurreko urtean atmosferara eta uretara isuritako isurtzeei eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Isurtzeen eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko 508/2007 Errege Dekretuarekin eta Ingurumena Zaintzeko Programari jarraikiz.

Informazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz bidaliko da.

2022ko irailaren 22a, osteguna

Datu horietako batzuek Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenean Eragina duten Jardueren Erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, informazioa Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko (E-PRTR-Europa erregistroa).

Ingurumen-adierazpena agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorritik. Lege horren bidez, informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, une oro bermatu beharko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

J) Instalazioetan aldaketak egin ahal izateko, aldeztu aurretik honako helbide elektronikoko honetan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko da:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/serv\\_proc\\_autorizacion/p\\_autho\\_20183895085814/procedures/proc\\_20183895329689/eu\\_def/adjuntos/Formulario\\_modificaciones.doc](https://www.euskadi.eus/contenidos/serv_proc_autorizacion/p_autho_20183895085814/procedures/proc_20183895329689/eu_def/adjuntos/Formulario_modificaciones.doc)

Erakunde honen onespina ere beharko da, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak 10. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Industriako Isurketen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikulua ezartzen ditu aldaketa funtsezkotzat jotzeko irizpideak.

Nolanahi ere, aipatutako 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan zehaztutakoarekin bat etorritik, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan ezarritako irizpideekin bat etorritik.

Era berean, proiektua aldatzen den kasuetan, aplikatzekoa izango da 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, 7.1.c eta 7.2.c artikuluetan xedatutakoa.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzoruak kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, aldaketa gauzatu aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko da, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorritik.

K) Ingurumen-baimen integratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 31. artikuluari jarraituz, eta aipatutako arauaren 32. artikuluan jasotako zigorrek ezartzea ekar dezake.

Hirugarrena.– Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) ustiatutako instalazioari 16-I-01-0000000319 erregistro-kodea esleitzea (Larrañazubi kalea 12/16 behea 2, Algorta – Getxo, Bizkaia). Instalazio horren kokapena hau da: UTM (ETRS89) 30N, X: 501.266, Y: 4.798.799.

Laugarrena.– Hondakin ez arriskutsuen zabortegiko itxi ondorengo 30 urteko aldia abiaraztea 2007ko abenduaren 13an. Izan ere, data horretan aurkeztu zituzten bai obra-amaierako ziurtagiria, bai hondakin ez-arriskutsuen zabortegia zigitatzeko obrak gauzatzeko as-built proiektua, Ebazpen honetan adierazitako baldintzak betez.

Bosgarrena.– Lurzoruaren kalitate-deklarazioa ematea lurrazalean bateragarria den industrialde gisa erabiltzeko, baldin eta zigilatzearen osotasuna uneoro bermatzen bada, Ebazpen honen bigarren apartatuko E azpiapartatuan adierazitako baldintzak betez. Kokalekua erabili nahi bada, ingurumen-organo honek berariaz onartzeko eskatu beharko du.

Seigarrena.– Ingurumeneko finantza-bermea.

a) Ingurumeneko finantza-bermea.

Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) bere jarduera profesionalaren ingurumen-arriskuen azterketa egin beharko du, abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretuaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera (26/2007 Legea zati batean garatzen duen Erregelamendua onartzen duena), finantza-bermea eratu behar duen ebaluatzeko, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen 24. artikuluaen arabera. Betebehar hori izanez gero, 1. eta 2. lehentasun-mailako operadoreek, ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren arabera, finantza-bermea izan beharko dute. Hala badagokio, finantza-bermea eratu ondoren, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio agintaritzak eskudunari, eta adierazpen horrek 2090/2008 Errege Dekretuaren IV.1 eranskinean adierazitako informazioa jaso beharko du gutxienez. 26/2007 Legearen 28. artikuluko a) eta b) apartatuetan aurreikusitako salbuespenei jarraikiz, jarduera finantza-bermea eratzetik salbuesita geratzen bada, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio agintaritzak eskudunari, eta hark IV.2 eranskinean jasotako informazioa jaso beharko du gutxienez. Erantzukizunpeko adierazpen hori Eusko Jaurlaritzak gaitutako prozedura telematikoaren bidez bakarrik aurkeztu behar da.

Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea), erakunde juridiko publikoa den aldetik, Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legearen zazpigarren xedapen gehigarriari hel diezaioke. Xedapen horren bidez, ez zaio exijituko Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen 24. artikuluan xedatutakoa. Kasu horretan, Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legearen xedapen gehigarri horri heltzen diola adierazi beharko du, Ingurumen Organoari zuzendutako idazki baten bidez.

Zazpigarrena.– Ingurumen-baimen integratuaren berrikuspenera ofizioz egingo da honako kasu hauetan:

a) Instalazioak sortutako kutsadura dela eta, finkatuta dauden isurketaren muga-balioak berrikustea edo beste batzuk ezartzea komeni bada.

b) Isurketak nabarmen murriztu badaitezke, teknika erabilgarri onenetan aldaketa handiak egiteko gehiegizko kostuak ezarri gabe.

c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela eta beste teknika batzuk erabili behar badira.

d) Instalazioari aplikagarri zaion sektoreko legediak hala eskatzen badu, edo Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 22.3 artikuluari jarraikiz, ingurumen-kalitateko arau berriak edo berrikusiak betetzea beharrezkoa bada.

e) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen bada.

f) Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten bada, bereziki inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

g) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharpenen arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaileak nahikoak ez direla egiaztatzen bada.

h) Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakietan ezarritakoarekin bat etorriz egindako azterketa eginda, aldatu egin behar dela ondorioztatzen bada.

Ingurumen-baimen integratua berrikusteak ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, hala ezarrita baitago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsadura-ren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26.5 artikuluan.

Zortzigarrena.– Alderdi hauei bi hilabeteko epean erantzuteko eskatzea Getxoko Udalari (Getxoko Udal Ingurumen Gunea):

- Ebazpen honetako A atalean adierazitako erantzukizun zibileko aseguruia eratu izanaren justifikazioa eta polizaren kopia.

- Administrazioarekiko harremanen arduraduna izendatzea.

- Hala badagokio, itxi ondorengo zainketak gauzatzen direla behatzeaz arduratuko den enpresa izendatzea.

- Ingurumena zaintzeko programa, Ebazpen honen arabera eguneratuta.

Bederatzigarrena.– Alderdi hauei sei hilabeteko gehieneko epean erantzuteko eskatzea Getxoko Udalari (Getxoko Udal Ingurumen Gunea):

- Getxoko Udala (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) 2. lehentasun-mailako operadore gisa dago sailkatuta ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren arabera. Agindu horren bidez ezartzen da, hain zuzen ere, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen azken xedapenetako laugarrenean aurreikusten diren eta APM/1040/2017 Aginduak aldatzen duen ministerio-aginduak onartzeko lehentasun-ordena eta egutegia.

Urriaren 10eko TEC/1023/2019 Aginduak ezartzen du Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueretan –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 3. lehentasun-mailakotzat sailkatutakoetan– nahitaezko finantza-bermea eratzeari noiztik eska daitekeen.

Hori dela eta, honako hauek aurkeztu beharko ditu ingurumen-organo honetan: erantzukizunpeko adierazpena, ingurumen-arriskuen azterketa eta, hala badagokio, nahitaezkoa zaion finantza-bermea edo ingurumen-erantzukizunari buruzko Legearen 28.b) artikuluan adierazitako nahitaezko finantza-bermea eratzeko salbuespenetako bat dela justifikatzen duen dokumentazioa.

- Azterketa finantzario eguneratua, ebazpen honen B apartatuan jasotzen den moduan.

- Lurzoruen dokumentu bakarra.

- Zabortegi osoaren egonkortasunari buruzko azterlana.

Hamargarrena.– Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 5.d) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hondakin ez-arriskutsuen zabortegia itxi ondorengo kontrol- eta mantentze-jarduerari dagokionez, zeina ebazpen honen xede baita, gerta litekeen titulartasun-aldaketa

oro jakinarazi beharko dio Getxoko Udalak (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, azken horrek onar dezan.

Hamaikagarrena.– Ingurumen-baimen integratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 31. artikuluari jarraituz –testu bategina abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen–, eta aipatutako legearen 32. artikuluan jasotako zigorrek ezartzea ekar dezake.

Hamabigarrena.– Honakoek eragingo dute baimen hau iraungitzea:

– Ebazpen honetako zortzigarren eta bederatzigarren apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen ez badu epearen barruan, baldin eta interesdunak ez badu behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen.

– Getxoko Udalaren (Getxoko Udal Ingurumen Gunea) nortasun juridikoa iraungitzen bada, indarreko arauak ezarritako kasuetan.

Hamahirugarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Getxoko Udalari (Getxoko Udal Ingurumen Gunea), Leioako eta Getxoko Udalei, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Hamalagarrena.– Ingurumen-baimen integratu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamabosgarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa jar dakioko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 12a.

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea,  
AMAIA BARREDO MARTÍN.